



### 3. artikulua.– Xedea.

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren xedea da tresna bat izatea EAEko Administrazioaren ekonomia-sustapenaren politikarako.

### 4. artikulua.– Eskumenak.

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziari eskumen hauek dagozkio, bere helburuak lortu ditzan:

- a) Sustapen-plan eta -programen diseinua eta exekuzioa bultzatzea alor hauetan: industria- eta enpresa-jarduera, industria arloko inbertsioa, garapena, dibertsifikazioa eta lehiakortasuna, berrikuntza, nazioartekotzea, Informazioaren eta Jakintzaren Gizartearen garapena eta enpresa-ekintzailetzaren sustapena.
- b) Industria arloko atzerriko inbertsioa sustatzea, balio erantsi handia duten eta enplegua sortzen duten proiektu trakziogileetan.
- c) Berrindustrializatzeko edo industria arloan esku-hartzeko premia berezia duten Euskal Autonomia Erkidegoko guneeetan, industriaren sustapena eta antolamendua bultzatzea, beste erakunde eskudun batzuekin lankidetzan.
- d) Egoeraren araberako zailtasunak dituzten enpresei dagokienez, esku-hartze programak eta proposamenak prestatzea, eta enpresa horiei bultzada bat ematea, lanpostuak eta industria-jarduera lehiakorra mantentzeko.
- e) Euskal enpresak nazioartekotzeko laguntza-sistema publikoa bultzatu eta sendotzea, eta euskal enpresei sostengua ematea atzerrian ezartzeko.
- f) Azpiegitura fisikoak eta ingurune teknologikoak sustatzea, industri arloko proiektuek kokapen bat izan dezaten eta lehiakorki garatu daitezzen.

### 5. artikulua.– Ekintzak.

Bere helburuak gauzatzeko eta beti ere bere eskumenen esparruan, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak ekintza hauek garatu ditzake:

- a) Laguntzak eta diru-laguntzak ematea eta dagozkien programak eta deialdiak onartu eta izapidetzea, diru-laguntzen arloko araudiarekin bat etorrira. Administrazio-ahalak egikarrituko dira diru-laguntzen programak onartzean, eta baita ere diru-laguntzak emateko eta, hala badagokio, itzultzeko ebazpenetan; administrazio-egintzak izango dira eta administrazio-bidea agortuko dute.
- b) Merkataritza-trafikoari berezko zaizkion mota guztietako finantza- eta ekonomia-jarduerak egitea, mota guztietako kontratuak egitea eta zerbitzuak ematea, nahiz eta horrek ez duen eragotziko administrazio instituzionalaren barneko erakunde bezala aplikatu behar zaizkion arau eta baldintzak aplikatzea.
- c) Merkataritza-sozietateen edo beste edozein erakunderen -baita irabazi-asmorik gabekoak badira ere- eratzailerik edo partaiderik izatea, Eusko Jaurlaritzaren baimena jaso ondoren eta beti ere bat etorritik administrazio instituzionalari aplikatzeko den ondare-araudiarekin. Hala ere, merkataritza-sozietate bateko bazkideek pertsonalki erantzuten badiete zor sozialei, SPRI ezingo da izan sozietate horretako parte.



- d) Lankidetzeta-hitzarmenak eta kontratuak sinatzea administrazio publikoekin eta sektore publikoko erakundeekin, eta baita ere pribatuekin.
- e) Lankidetzeta-formula espezifikoak ezartzea harreman-sare bat sortzeko erakunde publiko nahiz pribatuekin, euskal enpresei laguntza emateko beren nazioartekotze proiektuetan eta atzerriko jardueran.
- f) Bere eskumenekoak diren gaietarako txostenak egitea, administrazio orokorreko organoek hala eskatzen diotenean politika industrialean eta enpresen lehiakortasunean eskumena duen Sailaren bitartez.
- g) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren ordezkari jardutea ekonomiaren sustapenarekin zerikusia duten foro eta esparruetan, Eusko Jaurlaritzak edo arlo horretako eskumena duen Sailak hala aginduta.



### Artículo 3.– Finalidad.

SPRI-Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial tendrá como finalidad actuar como instrumento de la política de promoción económica de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

### Artículo 4.– Competencias.

Corresponden a «SPRI-Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial», para la consecución de sus fines, las siguientes competencias:

- a) Impulsar el diseño y la ejecución de planes y programas de promoción de la actividad industrial y empresarial, la inversión, el desarrollo, la diversificación y la competitividad industrial, la innovación, la internacionalización, el desarrollo de la Sociedad de la Información y del Conocimiento y el fomento de la actividad emprendedora empresarial.
- b) Promover la inversión industrial extranjera en proyectos tractores de alto valor añadido y generadores de empleo.
- c) Impulsar la promoción y ordenación industrial de zonas del País Vasco con especiales necesidades de reindustrialización o de actuación en materia industrial, en colaboración con otras instituciones competentes.
- d) Formular programas y propuestas de actuación en relación con las empresas en dificultades coyunturales y promover su relanzamiento en aras del mantenimiento de puestos de trabajo y de la actividad industrial competitiva.
- e) Impulsar y consolidar el sistema de apoyo público a la internacionalización de las empresas vascas, apoyando la implantación de empresas vascas en el exterior.
- f) Promover infraestructuras físicas y entornos tecnológicos que posibiliten la ubicación y adecuado desarrollo competitivo de proyectos industriales.

### Artículo 5.– Actuaciones.

«SPRI-Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial», para el cumplimiento de sus objetivos y en ejercicio de sus competencias, podrá desarrollar, entre otras, las siguientes actuaciones:

- a) Conceder ayudas y subvenciones, incluyendo la aprobación y tramitación de los correspondientes programas y convocatorias, de acuerdo con la normativa en materia de subvenciones. La aprobación de los programas de subvenciones, las resoluciones sobre su otorgamiento y, en su caso, sobre su reintegro supondrá ejercicio de potestades administrativas, tendrán la condición de actos administrativos y agotarán la vía administrativa.
- b) Realizar toda clase de actividades económicas y financieras propias del tráfico mercantil, celebrar todo tipo de contratos y prestar servicios, sin perjuicio de la normativa y condiciones que le sean de aplicación como ente perteneciente a la Administración Institucional.
- c) Constituir o participar en sociedades mercantiles o en cualquier otra entidad, aun sin ánimo de lucro, previa autorización del Gobierno Vasco y de conformidad con lo que establezca el ordenamiento patrimonial aplicable a la Administración Institucional. No obstante, no podrá formar parte de aquellas sociedades mercantiles en las que los socios respondan personalmente de las deudas sociales.



- d) Suscribir convenios de colaboración y contratos con Administraciones Públicas y entes del sector público, así como privados.
- e) Establecer fórmulas específicas de colaboración a fin de generar una red de relaciones con entidades públicas y privadas destinada al apoyo de las empresas vascas en sus proyectos de internacionalización y actividad exterior.
- f) Emitir informes en materias de su competencia a solicitud de los órganos de la Administración General que se los soliciten, a través del Departamento competente en materia de política industrial y competitividad empresarial.
- g) Ejercer la representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi en foros y ámbitos relacionados con la promoción económica que el Gobierno Vasco o el Departamento competente en dicha materia le encomiende.